

## **Martxoaren 12an greba EAEko zerbitzu publikoetan lan baldintzak hemen negoziatzeko borondate politikorik ez dagoelako**

**ELA, LAB, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuek mobilizazioekin jarraitzea beste aukerarik ez dute sektore publikoko lan baldintzak eta zerbitzua benetan hobetzeko**

**Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak diru bilketetan errekorra eta aurrekontuetan superabita dutenean, langileen behin-behinekotasunak muga historikoa gaingitu ditu ( %44) eta erosteko ahalmenaren galera % 8tik gorakoa izan da bi urteotan**

EAEko sektore publikoko bigarren greba egunetik bi hilabete igaro dira, eta erakundeek eta ordezkari politikoez elkarriketarako eta akordiorako borondatea adierazi duten arren, sektore publikoko egoera ez da hobetu, kontrakoa baizik: langile publikoen lan baldintzak okerrera egiten jarraitzen dute. Sektore pribatuan, mobilizazioari esker, sektoreko hitzarmen batzutan, KPItik gorako soldata igoerak lortzen ari dira. Sektore publikoan, berriz, Madrilek batutari eusten segitzen du euskal erakunde eta alderdi politikoen adostasunarekin, eta bi urteotan langileen erosteko ahalmenak %8ko galera izateaz gain, behin-behinekotasun orokorrek ere goia jo du: %44tik gorakoa da, historiako handiena, 65.000 langiletik gora (Osakidetzako sektore batzuetan % 50etik gorakoa da).

EAJren eta PSOEn arteko inbestidura akordioak, soldatak eta enplegua hemen erabakitzeko ate bat ireki zezakeen arren – argi utzi zuen horrek sindikatuen eskaerak borondate politikoiari lotutako auziak zirela, ez lortu ezinezkoak –, ez da benetako pausorik eman helburu hori lortzeko. Horren adibide argia da honako hau: Eusko Legebiltzarrak 2024rako onartutako aurrekontuetan, 19. artikulua jasotzen du Madrilek soldaten eta enpleguaren arloan hartzen dituen erabakiak bete behar direla.

Bestalde, sindikatuek eskatu diete euskal alderdi politikoei botoak baliatzea Madrilek ezarritako betoak galarazteko. Egun, ordea, beto horiek mantentzen dira. Aste gutxi barru landuko den Estatuko Aurrekontuen Legean beto horiek kentzearen alde egitea eskatzen diete.

Zerbitzu publikoetan egoera hau ematen den bitartean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek inoizko diru bilketa handiena egiten ari direnean. Eusko Jaurlaritzak ere superabita du aurrekontuetan, eta EAEko erakundeek bankuetan ia 10.000 milioi atxikita dituzte.

Horregatik, sektore publikoan % 80tik gorako ordezkariak duten ELA, LAB, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuek dei egiten diete langile publikoei grebarekin eta mobilizazioekin masiboki bat egin dezaten, erakundeek eta alderdi politikoez Madrilek betoak negoziatu eta baliogabetzea lortzeko, zerbitzu publikoen soldatak eta enplegua hemen negoziatu eta adostu ahal izateko.

Era berean, zerbitzu publikoen eta horiek ahalbideratzen dituzten pertsonen alde egiteko, sindikatuek erakundeei eskatzen diete lan baldintzak hobetu ditzatela. Zehazki, hauek dira eskatzen diren hobekuntzak:

- % 10eko soldata igoera eta aurretik hartutako zorra berreskuratzeko konpromisoa.

- Privatizazioei atea ixtea eta publikazio planak adostea.
- Enplegu publikoa sortzea eta kontsolidatzea, behin-behinekotasuna %8n kokatuz.
- Lan kargak arintzea, plantillen osasuna bermatuz.
- Politika feministak, berdintasunerako plan erreal eta eraginkorrak adostea.
- Administrazioak eta langileak euskaraz, iruzurrik gabe.
- Jardunaldiaren murrizketa 32 orduko lan astearen norabidean ipintzea.

Bilbon , 2024 ko otsailaren 9 an.

